

# TOKIKO ZAINTZA EKOSISTEMA



Urretxuko udala

# ZER DA TOKIKO ZAINTZA EKOSISTEMA?



Arreta eredu berri bat da:

1. EPE LUZEKO ZAINTZEN beharrari erantzuten diona

2. Arreta maila desberdinak KOORDINATZEN dituena

3. Pertsona bakoitzaren BEHAR ETA NAHIETARA EGOKITZEN dena.

*"Zerbitzua da pertsonen bizi- ibilbidera egokitzen dena, eta ez alderantziz"*

# TOKIKO ZAINTZA EKOSISTEMAREN

# DIMENTSIOAK

# 1. EREDU BERRI BAT

Lan profesionalaren eraldaketa: PERTSONA ARDATZ DUEN ikuspegiarekin lan egiten da eta ZAINTZA ETXEAN egitearen ideia babesten da.

## Nola egiten da hori?

1. Etxean balorazioa egiten da
2. Lortutako informazioaren erregistroa
3. Arreta eta Bizitza Planaren proposamena egiten da eta plana erabiltzailearekin adosten da.
4. Arreta eta Bizitza Planaren garapena eta jarraipena.



# 2. ELKARLANEKO GOBERNANTZA



Zer esan nahi du horrek?

**1.KOORDINAZIO SOZIOSANITARIOA** lehen mailako arretaren eta gizarte langilearen artean. Zertarako?

- Mendekotasuna baloratzeko prozesua bizkortzeko
- Estrategia bateratuak aztertzeko eta diseinatzeko
- Izapide burokratikoak sinplifikatzeko
- Kasu larriek dagozkien baliabideak arinago jaso ditzaten errazteko



# 2. ELKARLANERAKO GOBERNANTZA



## 2. GOBERNANTZA SOZIALA

Boluntariotzaren kudeaketa integrala, udalerriko boluntario-lanaren kalitatea eta fidelizazioa bermatzeko.

Nola egingo dugu?

Adinkide boluntariotza programaren bidez, boluntarioak ekintza boluntarioko taldeetan antolatuz eta trebatuz, adinekoen bakardadea prebenitzeko eta jorratzeko.



# 3. BERRIKUNTZA SOZIALA ETA TEKNOLOGIKOA



Tokiko Zaintza Ekosistemak produktu, zerbitzu eta/edo prozesu berriak gehitzen ditu sistemara, arreta hobea eskaintzeko:

1. Urretxun Zaindu
2. Urola Garaia Zaintza Lab
3. Zaintza Diagnostikoa



# 3. BERRIKUNTZA SOZIALA ETA TEKNOLOGIKOA

**1.URRETXUN ZAINDU**. Zaintzari laguntzeko tokiko proiektua, honako hauei zuzendua:

- Etxean zaurgarritasun edo mendekotasun egoeran bizi diren adinekoak
- Zaintzaileak, profesionalak zein senitartekoak.

| ERABILTZAILEA ETA ZAINTZALEA | GIZARTE LANGILEA |
| --- | --- |
| Bere bizitza eta ekintza plana ezagutu | Eskuhartzeen jarraipena egin |
| Ekintza Plana garatu (ariketa fisikoa, eskuhartze kognitiboa) aplikazioen eta jokoen bitartez | Dagozkion erabiltzaile eta zaintzaileekin komunikatu |
| Erreferentziazko profesionalekin elkarreragitea (zalantzak argitu, aldaketak proposatu...) | Erabiltzaileen Ekintza eta Bizitza Planak eguneratzeko informazioa izatea |

Norbere etxea izango da arreta-gunea, eta Eguneko Zentroa eta Gizarte Ekimen Saila izango dira erreferentzia nagusiak.

# 3. INNOVACIÓN SOCIAL Y TECNOLÓGICA



**2.UROLA GARAIA ZAINTZA LAB.** eskualde mailako proiektu honek hauskortasun fisikoa, mendekotasuna eta/edo mugikortasun murriztua duten pertsonen etxeetara zainketa berritzaileak eramanten ditu eta hala, pertsona horien autonomia hobetzen du.

## Nola?

**1. Etxebizitzaren balorazioa,** haren irisgarritasunarena eta erabiltzaileak eta haien familiak bizi diren ingurunearena.

**2.** Balorazioan ateratako ondorioetan oinarrituta, erabiltzaileari **laguntza teknikoa**, ortopedikoa edo errehabilitazioa eskaintzen zaio, bere beharretara hobekien egokitzen dena.



**3.** Erabiltzaileak **eguneroko jarduerak egin ditzake berriro**, hala nola janztea, jatea edo bainatzea, laguntzei esker.

# 3. BERRIKUNTZA SOZIAL ETA TEKNOLOGIKOA



**3. ZAINTZA DIAGNOSTIKOA** zaintzaileak zaintzeko.



Diagnostiko parte-hartzailea, Urola Garaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean oinarritua, zaintza eredu justu eta arduratsu bat helburu eta helmuga dituena.

Horrek zer ekarriko du?

Urola Garaiko zainketen eta baliabideen egungo benetako egoeraren berri izango dugu, gero estrategia eta ekimen eraldatzaileak landu ahal izateko.



# 4. IKASKETA ETA ELKARLANA



**ZAINTZA HERRILAB. UDALERRIEN SAREA.**

Gipuzkoako beste zenbait udalerrirekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Adinberri Fundazioak zuzendutako ekimen honen parte gara. Etxean bizi diren ahultasun eta mendekotasun egoeran dauden adinekoen arreta eta zaintza hobetzeko Tokiko Zaintza Ekosistemak garatzea da ekimenaren helburua.

## Zer egiten dugu talde horretan?

- Esperientziak partekatu
- Informazioa partekatu
- Herriarteko elkarlana
- Etengabeko ikaskuntza



# 5. EBALUAZIO SISTEMATIKOA

**BANAKAKO EBALUAZIOAK** proiektu bakoitzarenak: bakoitzean ematen diren aurrerapausoak eta hobetu beharrekoak neurtzeko eta ezagutzeko.

**BI NEURGAILU** Tokiko Zaintza Ekosistemaren funtzionamendua eta norabide orokorra ebaluatzeko, zuzentzeko eta hobetzeko

1. **Zahartzea eta bakardadea**
2. **Zaintzen kalitatea**



# 5. EBALUAZIO SISTEMATIKOA

## 1. ZAHARTZEA ETA BAKARDADEA

**NORK?** Udalak

**NOIZ?** Bi urtero

**NORI?** Bakarrik eta bakardadean egoteko arriskuan bizi diren pertsonak

**NOLA?** Datu estatistikoak + elkarrizketa pertsonala

**EMAITZA:** Urretxuren benetako egoera bakardadeari dagokionean

## 2. ZAINTZEN KALITATEA

**NORK?** Udalak

**NOIZ?** Bi urtero

**NORI?** Prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonak

**NOLA?** Bisita etxebizitzara + elkarrizketa pertsonala

**EMAITZA:** Arreta egokia jasotzen duten jakitea + bizikidetza eta bizigarritasun baldintzak ezagutzea